



Konfiantza, haurraren garapenaren ardatza

Gurasoen txokoa Jakintzak 50 urte
Ikasleen txokoa Zumaiako Algorrira bisita



jakintzaikastola

agenda

IRAILA

HAUR HEZKUNTZA

Egokitzen.

LEHEN HEZKUNTZA

Orokorra: Donostiako zinemaldia.

LH 1: Herriko parkeak ezagutzera.

LH 3: Ordizia ezagutzen.

URRIA

HAUR HEZKUNTZA

HH 4: Aquariumera.

HH 5: Ataungo sagardotegira.

LEHEN HEZKUNTZA

LH 3: Ordizia ezagutzen.

LH 4: Lizarrusti-Lareo-J.M.Barandiaran museora.

LH 6: Arrikutz kobazulora.

DBH

DBH 1: Txuri Urdin eta Zientzia Museora.

DBH 2: Ekoelikadura eta Zientzia Museora.

DBH 4: Albalola museora eta mendi irteera (Pasaia-Donostia).

DBHO

DBHO 1 Euskararen etxera.

DBHO 2 Euskararen etxera.

AZAROA

HAUR HEZKUNTZA

HH 3: Azokara.

LEHEN HEZKUNTZA

LH 1: Oiangura.

LH 2: D'elikatzera eta Xabierko gaztelura.

LH 1 eta LH 2: Txotxongilo emanaldia.

LH 4: Arriarango urtegia, D'elikatzu museora eta Goierriko herriak.

LH 5: Iruñeko Planetaria.

LH 6: Zumaiara Flysch-era eta Sasietaoak gurean.

DBH

DBH 3 Migel Anjel Mintegirekin solasaldia.

DBH 4 Orientazioko solasaldia.

Irakurle taldearekin solasaldia.

ABENDUA

HAUR HEZKUNTZA

Oientzeroren etorrera.

LEHEN HEZKUNTZA

Orokorra: Oientzeroren etorrera.

LH 5: Durangoko azokara.

DBHO

DBHO 1: Txuri Urdinera.

DBHO 2: Unitour-era.

OROKORRA

Euskararen Eguna.

Ikastolako Batzarra.

AMAIA AYERRA
Jakintza ikastolako zuzendaria



Erronka berriak ditugu aurrez aurre

Eraldaketa garaia da, eta esparru guztietatik datozkigun mezuak bat datoz: pertsona izan dadila historia guztiaren protagonista baita hezkuntzan ere.

Hezkuntza gizartearekin bat eraldatzen joan beharko lukeen sistema bat da, baina eraldaketari erresistentzia handia jartzen dionik ere bada. Atzo ikasitakoak agian gaur ez du baliorik, eta gaurkoak ez dakigu biharkoan izango ote duen. Gizartearen abiadurak eta etorkizunaren ziurgabetasunak gure sistema blokeatu du eta hortik ateratzeko esfortzu eta lanak ez dira makalak izango. Kontuan izanda ezagutu, ikasi eta bizi ditugun esperientziak baldintzatzen dutela gure

egunerokoa, esfortzu handia egin beharrean gaude dakiguna desikasten eta begirada berri bat eratzen. Eta hori nola egiten da?

Beste edozein prozesutan bezalaxe, ilusioa ipiniz. Erosotasun eta seguritate eremutik atera behar gara, etorkizuneko haur eta gazte hauei egokituko zaizkien egoerei aurre egiteko estrategiak lantzeko aukerak eman behar dizkiegulako. Gure zalantzak, beldurrak, ezinegonak partekatu eta eztabaidatu behar ditugu, baina ez daitezela traba izan beste guztiaren garapenerako.

Ilusioa eta curiositatea izan ditzagula bidelagun!

Berdintasunaren zuhaitza

Azaroaren 25a aitzaki, batxilergoko lehen mailako ikasle talde batek urte osoan zehar egun berezien aldarrikapena lantzeko *Berdintasunaren zuhaitza* proiektua martxan jarri dute. Ionek, teknologiako irakasleak, egindako diseinu bat egurrean moztu eta ikasleen txokoan zintzilikatu dute. Dagoeneko 3 lanketa egiteko aukera eman digu: *Emakumeenganako indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna* (azaroaren 25a), *Hiesaren aurkako borrokaren Nazioarteko Eguna* (abenduarien 1a) eta 3a, *Euskararen Eguna*.



Hasiera besterik ez da izan eta zeinek daki zenbat gehiagorako emango duen!

NUEVOS RETOS. En estos tiempos de cambio la persona se convierte en el centro de todo, incluso en la educación, pero el sistema educativo se resiste a evolucionar al ritmo de la sociedad. Debemos realizar un gran esfuerzo para desaprender lo que sabemos y mirar hacia adelante con otro punto de vista, porque tenemos que ofrecer estrategias a los niños y jóvenes para que puedan enfrentarse a los retos del futuro. ¡Que la ilusión y la curiosidad nos acompañen en el viaje! **EL ÁRBOL DE LA IGUALDAD** instalado en el txoko de los alumnos sirve de soporte para distintas reivindicaciones, como las del Día Internacional contra la violencia hacia las mujeres (25 de noviembre), del Día Internacional de la lucha contra el Sida (2 de diciembre) y del Día Internacional del Euskara (3 de diciembre).

JAKINTZAK 50 URTE

«Bazen behin, duela urte asko, Ordizia euskalduntzeko ikastola bat sortu nahi izan zuten herritar talde bat». Horrela has liteke eta hasi zen Jakintza Ikastolaren historia.

1965. urte inguruan, inguruko herrietan zegoen mugimendua ikusirik, Ordiziako guraso eta gazte talde bat, Jazinto Setien apaiza buru zutela, Ataunen biltzen hasi zen. Bilera haletan hitz egindakoa Ordiziako Guraso Elkarteari azaldu eta, bide batez, laguntza eskatu ere egin zitzaion. Jose Ramon Gaztañaga zen Ordiziako Guraso Elkarteko buru. Begi onez ikusi zuten proiektua eta bultzada emateko prest agertu ziren.

1968. urtean sortu zen Ordiziako Jakintza Ikastola, eta 50 ikasle inguru elkartu zituen Sanperio kaleko Pelotazale Elkartean. Bi andereño, Rosarito Lasa eta Mari Karmen Oiarbide, izan ziren ikasle horien heziketaren ardura hartu zutenak, gurasoen ilusio, ekimen eta laguntzarekin batera.

Pasa dira 50 urte, eta aldatu da guztiz egoera: 50 ikasletik 860ra pasa gara, 2 irakasletik 65 ingurura eta klandestinitatetik web orrialde eta sare sozialetara salto egin dugu. Baina bada oinarrian, mende erdia pasa den arren, aldatu ez den erroa: Ordizia euskalduntzeko proiektua.

Edozein ipuinek bezalaxe, sarrera egin daukagu eta historiaren korapiloan gabiltza. Maitasuneko istorioen antzera, gure gorabeherak, krisiak eta maitemintze prozesuak izan ditugu, baina bertan jarraitzen dugu, historia eginez gogotsu eta ilusioz. Horregatik, epe motzeko etorkizunean hau guztia ospatzeko erronka daukagu.

Dagoeneko egin ditugu bilera zabal bi, eta 2018ko ospakizunak antolatzen hasiak gara. Alde batetik, urtean zehar ospatzeko egin daitezkeen ekintzen plana diseinatzen hasi gara, eta bestetik, 50 urte hauen bilduma jasoko duen liburu-cd baten proiektua bideratzen.

Poliki-poliki, 2017ko urtean zehar lotzen joango garen bi proiektuetarako partaidetza anitz eta zabala lortu nahiko genuke. Beraz, animatu parte hartzera!



ORIENTAZIO JARDUNALDIAK

Aurtengo ikasturtean Batxilergoko ikasleei zuzendutako orientazio jardunaldiak antolatu ditu orientatzaileak. Urtean zehar egiten ziren saio ezberdinei buelta bat eman eta formatu berri batera jo dute: aste betez, etorkizuneko informazioa iturri ezberdinetatik jasotzeko aukera zabaldu. Alde batetik Unitourrea egin dute. Bertan estatu mailako unibertsitateekin harremanetan jartzeko aukera izan dute, ondoren Euskal Herriko unibertsitate ezberdinetako kideekin solasaldiak izango dituzte ikastola bertan, eta amaitzeko, ikasle ohiekin mahai-inguru bat antolatu dute, esperientzia batzuetatik abiatu eta dituzten zalantzak argitzeko. Etorkizunari informazioz aurre egiteko aste osoko esperientzia aberasgarria izan dadila.

JAKINTZA, 50 AÑOS. En 1965, un grupo de padres dirigidos por el sacerdote Jazinto Setien, se sumó a las inquietudes de los pueblos de alrededor y comenzó a reunirse en Ataun con la idea de crear una ikastola en Ordizia. El proyecto contó con el apoyo de la Asociación de Padres, dirigida por José Ramón Gaztañaga, y se materializó en el nacimiento de la ikastola Jakintza en 1968. Su sede estaba en la sociedad Pelotazale de la calle Samperio y contaba con unos 50 alumnos y dos profesoras: Rosarito Lasa y Mari Karmen Oiarbide. Hoy en día tiene 860 alumnos y 65 profesores y continúa con su objetivo de euskaldunizar Ordizia. Ya se ha empezado a perfilar un programa de actividades para la celebración de los 50 años en 2018 y se prevé editar un libro-CD con la historia de la ikastola. ¡Animaos a participar!

JORNADAS DE ORIENTACIÓN. Este curso se les ha dado un nuevo enfoque a las jornadas de orientación de Bachillerato, y durante una semana los alumnos han participado en varias actividades informativas. Por un lado, han podido realizar el Unitour, una ronda informativa por distintas universidades del estado español. Por otro lado, recibirán visitas de representantes de las universidades vascas en la misma ikastola. Y por último, han organizado una mesa redonda con ex-alumnos de la ikastola para que les cuenten sus experiencias.

KONFIANTZAREN PEDAGOGIA, HAURRA IKASKETAREN MUINA

Konfiantzaren Pedagogia metodologia ezartzeko lehen urratsak egiten ari dira Haur Hezkuntzan. Haurra eta bere garapena dira lan metodo horren erdigunea, eta ikasketarako testuinguru erakargarri bat sortzea eskatzen du. Irakasleak formazioa jasotzen ari dira, eta gurasoek ere izango dute horretarako aukera urte hasieran.



Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Enpresa fakultateak garatutako Hazitegi ikerketa proiektuan du oinarri Konfiantzaren Pedagogia irakaskuntza metodologiak. Rafael Cristobal psikiatra eta irakaslea da metodo horren sustatzaile nagusia, eta Arrasateko Arizmendi ikastolan ezarri zuten geroztik, hainbat ikastola izan dira bide berari heldu diotenak. Haur Hezkuntzan irailan hasi dira metodologia horri lotutako oinarritzko aldaketa batzuk egiten –ate irekiekin lan egin, ordutegi malguak, gurasoak gela barrura sartu...–, eta irakasleak hamabost hilabeteko formazio epe batean murgilduta daude. Rafael Cristobal aita eta Jurgi semea ari dira elkarrekin lanketa hau bideratzen eta garatzen Jakintzan.

Haurra hezkuntza prozesuaren erdigunean jartzea da Konfiantzaren Pedagogia, pertsona lehenestea ikaslearen aurretik. Umeak segurtasuna eta konfiantza behar ditu bere gaitasun guztiak garatzeko, eta ezagutzaren eta zientziaren mundura zabaltzeko. Oinarritzko konfiantzaren eta autoestimua jatorria haurren eta zaintzailaren artean sortzen den loturan dago, eta horixe lantzen da metodo honen bidez. Horretarako, eskolako komunitatearekin buruz buru lan eginez, hazkuntza mota hori sustatuko duten testuinguru pertsonal, pedagogiko eta arkitektonikoak garatu behar dira.

Lau ardatz ditu Arrasateko aita-semeek eskaintzen duten aholkularitza zerbitzuak: irakasleen psikopedagogia

ikastaroa, gurasoen psikopedagogia ikastaroa, behaketa egonaldiak eta espazio pedagogikoen eraldaketa. Haur psikiatria, pedagogia, antropologia eta arkitektura adituek osatzen dute lan-taldea. Eta helburu argia dute, haurren garapenerako egokia izango den komunitate pedagogiko bat sortzea gurasoen eta eskolaren arteko harremana sustatuz.

Irakaslearen begirada

Maitane Terradillos (5 urteko gela) eta Amaia Martinez (3 urteko gela) dira metodo honen ezarpena kudeatzen ari diren Haur Hezkuntzako irakasleak. Biek formazioa jasotzen dute Cristobal aita-semeekin, ikastola barruan gainontzeko irakasleak gidatzen dituzte eta hileroko saioetan ere parte hartzen

dute. Ikastolen Elkartek antolatutako mintegi batzuetan ezagutu zituzten Arrasateko eta beste ikastola batzuetako esperientziak, eta hango esanak gustatuta, Jakintzan metodo hori ezartzeko lanari heldu diote.

«Formazioarekin irailan hasi arren, ideia orokorraren berri baguen aurretik, eta aldaketa batzuk egiten hastea erabaki genuen: gelako ateak irekita uztea, gurasoak egunero gela barruan, ordutegi malgua... Umeak lasaiago gelditzen direla sumatu dugu, eta asko gustatzen zaiela gurasoekin gela barruan egotea», adierazi du Maitanek. Gela antolaketa ere aldatu dute, Amaiak zehaztu duenez: «Lehen gelak geneuzkan lau txokotan banatuta, eta orain dauzkagu gela bakoitzean bi txoko, espazioak irekiagoak eta handiagoak dira, eta umeak ibiltzen dira bi gelatan nahastuta».

Metodo honen aldaketarik nabarmenena haurri begiratzeko modua dela dio Maitanek: «Aldatu beharrekoa begirada da. Haurra da ikastolaren erdigunea, pertsona bat da, eta pertsona bezala errespetatu behar da. Hori da oinarria, eta hortik abiatzen dira beste gauza guztiak». Honako azalpena gehitu du Amaiak: «Lehen pentsatzen zen umeek motxila hutsik ekartzen zutela etxetik, eta guk erakusten genienarekin bete egiten zitzaizela. Orain guztiz kontrakoa da. Umea etortzen da motxila batekin, eta guk ikusi behar duguna da ume bakoitzaren gaitasunak eta horiek bideratzeko estrategiak eman».

Helburua aldaketa ziklo guztietara zabaltzea bada ere, oraingoz Haur Hezkuntzan ari dira batik bat: «Haur Hezkuntzan mailaka banatuta egin ditugu aldaketak, poliki-poliki. Gurea izan da aurreneko pausua. Ikastola batzuetan paretak ere bota dituzte. Aurrera egiten ari garen heinean, ikusten dugu gauza asko

beharrezkoak izango direla, logika bat badutela».

Gurasoen ikuspegia

Bi andereñoek argi ikusi dute metodo honen bitartez gurasoekiko gertutasuna areagotu dela. Gurasoekin harreman estuagoa

MAITANE TERRADILLOS (5 urteko gelako irakaslea)

«Aldatu beharrekoa begirada da. Haurra da ikastolaren erdigunea, pertsona bat da, eta pertsona bezala errespetatu behar da»

AMAIA MARTINEZ (3 urteko gelako irakaslea)

«Guk ikusi behar duguna da ume bakoitzaren gaitasunak eta zailtasunak zeintzuk diren, eta horiek bideratzeko estrategiak eman»

MIREN AIERBE (4 urteko gelan du haurra)

«Formaziorako kuriositatea badaukat, guraso bezala zer paut jarraitu behar ditugun jakiteko»

LEIRE MENDIZABAL (5 urteko gelan du haurra)

«Ikusten dut harreman gehiago daukala beste gelakoekin, iaz beste gelakoen izenik ere ez zekien»

dutela sentitzen dute, eta gurasoak ere lasai sumatzen dituzte edozein galdera egiteko garaian. Iraileko bileran jakin zuten Konfiantzaren Pedagogia metodoaren lehen urratsekin hastekoak zirela ikastolan, eta lehen hilabeteotan izandako sentipenak partekatu dituzte Leire Mendizabal –5 urteko gelan du haurra– eta Miren Aierbe –4 urteko gelan– gurasoek.

«Eman diren aldaketak ez dira handiak, hasteko ondo dago. Haur bakoitzak izan ditzakeen gaitasunak garatzeari garrantzia ematea ondo iruditzen zait. Gelara ez naiz asko sartu oraingoz, baina pixkanaka hasi gara... Denok ere ohitzen ari garela uste dut, baina orain, egia da gela barrura sartzen bazara, andereñoari galdetzeko kofiantza baduzula», adierazi du Mirenek.

Lankide baten bidez zuen Leirek metodoaren berri, eta bilera bezperan egon ziren zurrumurruekin gogoratu da, «paretak bota behar zituztela, eta horrelakoak». Haurra oso gustura ikusten duela dio: «Iaz kosta egin zitzaion martxa hartzea, eta aurrean aldiz... Ikusten dut harreman gehiago daukala beste gelakoekin, iaz beste gelakoen izenik ere ez zekien. Seguroago eta lasaiago ikusten dut, eta plazan ere bai».

Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarako jauzia nola izango den, horrek ere sortzen du kezka gurasoengan. «Nola egingo da jarraipena?», izan da ikasturte hasieran ahotan izan zuten galderetako bat. Lehen Hezkuntzako lehenengo ziklokoak ere ari dira formazioa hartzen, eta helburua ere bada han ere aldaketa batzuk ematea, Amaiak aurreratu duenez. «Umeak begiratzeko moduarena aipatu duzue. Formaziorako kuriositatea badaukat guraso bezala zer paut jarraitu behar ditugun jakiteko, denok norabide berean joateko», gaineratu du Mirenek. Gurasoek urtaril-otsalean izango dute formazioa jaso eta zalantzak argitzeko aukera.

JURGI CRISTOBAL

“Haurraren konfiantza eduki behar da, guk lagundu egin behar diogu dituen potentzialitateak aurkitzen eta garatzen”

Nola azalduko zenuke hitz lauz zer den Konfiantzarako Pedagogia?

Orain arte badirudi irakaslea zurgina zela, haurrari forma eman behar ziona, eta orain pasatu behar da zurginaren pentsamoldetik nekazariaren pentsamoldera. Nekazariak badu konfiantza bere hazian, baina horrek ez du esan nahi ez dionik haziari lagunduko. Hazi hori ondo erein dadin baldintzak sortuko ditu, ongarritu egingo du, ureztatu... Guk egiten duguna da zientzia pedagogiko eta psikologikoetan eman diren lorpenak irakasleekin eta ikasleekin partekatu, ikaskuntza eredu horretaz jabetu daitezen. Ekologia bat garatu beharra dago. Esaterako, gurasoak eskola barrura sartuta umeak lasaitu egiten dira, eta ez da sortzen etxearen eta eskolaren arteko etenik, jarraipen bat da.

Eskolarekiko eta jakintzarekiko gogoia sustatu behar dela diozu.

Haurrek berezko joera dute behatzeko, ikasteko, ekiteko eta elkarrekin erlazionatzeko, eta joera horiek betez gero, era integral eta osasuntsuan hazten dira. Eskolan utzi dugunean, gu ez gara geldirik geratu, garatu egin gara, gaitasun hori berezkoa delako. Baina orain arte, askotan, bortxatu egin ditugu, eta askok eskolarekiko eta ikastearekiko jarrera negatiboa garatu dute. Umeek «zergatik» galdetzen dute, zientzialari txiki batzuk dira, eta umeek duten jakinmin hori erabili egin beharra dago, lagundu egin behar zaie, eta sustatu.

Haur Hezkuntzan dago gakoa, hortaz.

Haur Hezkuntza da dena, garairik garrantzitsuena. Kontutan hartu behar dena da gure garuneko

konexioen %90etik gora aurreneko lau urteetan garatzen direla, eta horrebestez, baita gure izaeraren zutabe nagusiak ere. Eta eskolarekiko eta irakaskuntzarekiko joera, kasu gehienetan, garai honetan garatzen da. Txikitatik hasi behar gara, hazitik. Nekazariak badaki hori. Haurraren konfiantza eduki behar da, guk lagundu egin behar diogu dituen potentzialitateak aurkitzen eta garatzen. Ikaskuntza emozioari lotuta egon behar da, gure garunean ondo errotzea nahi badugu. Haur Hezkuntza da etorkizunean beharrezkoak izango diren gaitasunak finkatzeko eta garatzeko lekua.

Etorkizunak ere kezkatzen zaituzte.

Etorkizun ezezagun baten aurrean gaude. Estimaten da gaur egungo Lehen Hezkuntzako haurren %65ek gaur-gaurkoz existitzen ez diren lanpostuetan egingo dutela lan, eta automatizazio maila oso altua izango dela. Testuinguru honetan, ez dago argi etorkizuneko helduek

zer jakin beharko duten, baina bai etorkizuneko lanpostuek hezkuntza jarraitua eskatuko dutela. Gure helburua ez da bakarrik haur alaiagoak egitea, baizik eta produktiboagoak ere izatea, zoriontsuak badira emateko prest egongo baitira.

Horrelako metodo aldaketek zeresana jarri ohi dute eskola komunitatean. Zer mezu emango zenieke?

Esan nahiko nuke Jakintzako irakasleak izaten ari den jarrera zoragarria dela, ikasteko gogoarekin, eta haurrekiko ere jarrera egokiarekin. Gurasoek ere badute zeregina bide horretan. Aldaketa azkarrek alarma guztiak pizten dituzte, eta trantsizioak egin behar dira poliki. Guk nahi duguna da estrukturaliki haurrentzako giro atsegin bat sortzea, haurrak estimulatuko dituzten giroak sortzea. Ez da kontua paretak botatzea, baina argi dagoena da testuinguru malguk haurrari bere lekua bilatzen laguntzen diotela. Haurren burujabetza hori lantzen hasten gara txikitatik.



«Guk nahi duguna da estrukturaliki haurrentzako giro atsegin bat sortzea, haurrak estimulatuko dituzten giroak sortzea»

«Umeek duten jakinmin hori erabili egin beharra dago, lagundu egin behar zaie, eta sustatu»



La pedagogía basada en la confianza

La Pedagogía de la Confianza es un método de enseñanza que tiene su origen en el proyecto de investigación Hazitegi desarrollado por la facultad de Humanidades y Empresa de Mondragón Unibertsitatea. **Rafael Cristóbal** es su principal impulsor. El método se estrenó en la ikastola Arizmendi de Arrasate y Jakintza es uno de los centros que lo han adoptado posteriormente. Es el mismo Cristóbal junto a su hijo Jurgi es quien está dirigiendo el proyecto en la ikastola de Ordizia. Desde septiembre se están introduciendo los cambios que conllevan la nueva metodología y el profesorado está inmerso en un **ciclo formativo de 15 meses de duración**.

La Pedagogía de la Confianza consiste en colocar al niño en el centro del proceso educativo, en priorizar la persona al alumno. El niño necesita seguridad y confianza para desarrollar todas sus capacidades y para abrirse al mundo del conocimiento y de la ciencia. El origen de la confianza y de la autoestima está en el **vínculo niño-cuidador** y este método estimula ese vínculo. Por ello, deben promoverse un contexto personal, pedagógico y arquitectónico que impulse ese tipo de educación. El asesoramiento que ofrecen Cristóbal padre e hijo se basa en cuatro ejes: el curso de psicopedagogía para los profesores, el curso de psicopedagogía para los padres, las sesiones de seguimiento y la transformación de los espacios pedagógicos. El grupo de trabajo está formado por psiquiatras infantiles, pedagógicos, antropólogos y arquitectos.

Maitane Terradillos y Amaia Martínez son las profesoras de Educación Infantil encargadas de la implantación de este método en Jakintza. Lo conocieron en unos seminarios organizados por la asociación de ikastolas y decidieron importarlo a Jakintza. Ellas son las encargadas de trasladar a sus compañeros la formación que reciben de los Cristóbal.

Dejar abiertas las puertas de las aulas, dejar que los padres se queden con sus hijos en las aulas, flexibilizar los horarios, crear espacios más abiertos... son algunos de los cambios que se han ido introduciendo desde septiembre, **pero lo que más ha cambiado con este método es el modo de mirar al niño**. «El niño es el centro de la ikastola, es una persona y hay que respetarla como persona», explica Maitane y a continuación Amaia añade que «los profesores debemos ver las aptitudes y dificultades de cada niño y ofrecerles estrategias para encaminarlos». La Pedagogía de la Confianza se está implantando de momento en Educación Infantil, aunque la idea es hacerlo en todos los ciclos.

Las dos andereños han advertido que **con el nuevo método se ha estrechado la relación con los padres**. Leire Mendizabal y Miren Aierbe son madres de niños de Infantil y ellas lo confirman. Además, las dos ven con buenos ojos los cambios que se van introduciendo, ya que ayudan al desarrollo de las capacidades de cada niño. «Ahora vemos a nuestros hijos más seguros y más tranquilos» admiten. De todas maneras, también manifiestan su preocupación sobre la continuación que se le dará a la implantación de la Pedagogía de la Confianza en Primaria. En el primer ciclo también están recibiendo la formación correspondiente y pronto comenzarán a hacerse algunos cambios. **Los padres comenzarán en enero-febrero con la formación**. «Tenemos curiosidad por saber qué pautas debemos seguir» confiesan Miren y Leire.

Por su parte, Jurgi Cristóbal resume así el fundamento en el que se basa la Pedagogía de la Confianza: «Hay que tener confianza en el niño, nosotros solo debemos ayudarle a detectar y desarrollar las potencialidades que tiene».



Goiko argazkian, formakuntza saio bat. Behekoan 3 urteko gela batean gurasoak, haurrak eta irakasleak.

2 URTEKOAK TXOKO BERRIAK EZAGUTZEN



Urtero legez, aurtengo ikasturtean ere 2 urteko ikasleak hasi zaizkigu ikastolan. Ikastolarekin familiarizatze prozesuan murgilduta ibili dira irakasle, ikasle zein gurasoak. Euren geletatik hasi eta ikastolan ditugun txoko desberdinak ezagutzen eta bertako materialekin esperimentatzen ere aritu dira gure txikitxoak. Besteak beste, hain gustuko duten baratza ezagutu dute eta gainera, beraiek izan dira lehenak esperimentu txiki bat gauzatzen. Ureztatzeko ur botilak jarri dituzte landatutako barazkien inguruan eta bakoitzak bere ureztigailua hartuta botilara ura botaz ureztatu dituzte. Erakutsitako interesa eta maitasuna kontuan hartuta, zalantzarik gabe barazki ederrak aterako zaizkie bertatik!



EUSKARAREN EGUNA

Abenduaren 2an kalera irten ginen Jakintzako kideak Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzera. Xalbadorren heriotzaren 40. urteurrena eta aurten joan zaigun Imanol Urbietaren omendu nahi izan genituen herriko plazan eta pilotalekuan jaialdiak eginez. Ikasleen partehartzea txalotzekoa izan zen, denetarik eskaini ziguten: abestien antzezpenak, musika talde hasiberrien emanaldiak, poema eta mikroipuin musikatuak, dantza, gorputz perkusioa... Artista mordoa ditugu Jakintza ikastolan, bai horixe! Egunari amaiera emateko ikastolako hormetan koloretako hitzen katea itsatsi genuen! Maitasuna, laguntasuna, askatasuna, errespetua... 365 hitz baino gehiago! Horiek dira gure ikasleen hitzak: koloretako euskarazko hitzak!



– Los niños y niñas de 2 años van descubriendo poco a poco los distintos **txokos de la ikastola**. Uno de ellos es la huerta, donde han participado en un experimento consistente en el riego de plantas con botellas de agua. Con el interés y el cariño que han puesto, seguro que la cosecha será estupenda. – El 2 de diciembre Jakintza celebró el **Día Internacional del Euskara** con un festival que tuvo lugar en la plaza y en el frontón, y en el que no faltó la música, el teatro y el baile, junto con el recuerdo de Imanol Urbietaren y de Xalbador. Además, en las paredes de la ikastola se colgó un mural compuesto por una cadena de palabras escritas en euskara, más de 365 palabras en euskara llenas de color, amor, libertad, respeto...

BIZITZEKOA DA!

Abenduaren lehen urratsekin batera, euskal kulturgintzaren festarik esanguratsuenetako bat ospatzen dugu Durangon. Azoka horrek gune asko ditu: Ahotsenea, Irudienea, Plateruenea, Kabia, Szenatokia... eta Saguganbara.

Saguganbara, magia eta irudimenez betetako lekua da, euskal kulturaren transmisiorako gunea, hizkuntzarekin jolas egiteko gunea.

Nola ez, bai! Aukera hau ezin zen galdu eta hara, Durangoko Azokara joan dira gure 5. mailako neska mutilak. Ikusminez, jakinminez, ilusioz... gainezka joan dira.

Autobusetik jaitsi orduko, Saguganbarara zuzendu dituzte beraien pausoak. Ganbaran sartu eta han zituzten zain, zintzo demonio, tailerretako monitorea. Aurten bi tailerretatik pasatu dira: Komiki tailerra eta Antzerkiarena, zein baino zein kilikagarriagoak!

Bazkari pasaera egin ondoren, ingururua eta azoka bera ezagutzera, maxiatzera, arakatzera joan dira.

Emozioz beteta, kulturaz blai eginda eta leher-leher eginda bukatu dute. Benetan merezi zuen gaurko egunak! BIZITZEKOA IZAN DA!



ZIUUU, DENBORAREN MAKINAN BAGOAAZZ

Zenbat maite duten 1. eta 2. mailako ikasleek beren denboraren makina. Batzuek berria egiten izugarrizko gozatua hartu dute. Besteak, berriz, konponketa eta txukunketa lanak egiten ari dira puntu-puntu izan arte. Eta behin bukatutakoan martxan jarri eta ziuuuu!, abentura berriak bizitzera abiatu dira Maialen, Fermin, Urdintxo eta Poxekin batera.

Uauuu!, a ze sorpresa hartu duten lehenengo mailakoek dinosauroen mundura iritsi direnean eta gertutik ikusi dituztenean; uffff zein baino zein handiagoa eta beldurgarriagoa! Zenbat gauza ikusi eta ikasi dituzten!



2. mailakoak, berriz, Erdi Arora joan dira eta hainbeste gustatzen zaizkien gazteluak, zaldunak, printzesak, borrokak... ikusteko aukera izan dute.

Bidaia horretan lehenengo mailakoek Oiangun geldiene bat egin dute dinosauroen arrastoren bat ikusteko itxaropenarekin, eta dinosauroenak ez, baina behi, zaldi, ardi eta satorren arrasto ugari ikusi dituzte, eta pozik gainera.

Bigarren mailakoak, berriz, Nafarroako Xabierren gelditu dira eta bertan liluratuta entzun dituzte garai hartan Xabierrek munduan barrena egindako ibilbideak eta bertan izandako gora-beherak.

Hurrengo bidaiarako prest daude gure ikasleak. Nora eramango dituzte denboraren makinak? Auskalooo!!!



— Los chicos y chicas de 5º curso han visitado la **Feria de Durango**, la fiesta más importante del ámbito cultural vasco. Allí participaron en los talleres de cómics y de teatro que se ofrecían en el espacio Saguganbara. Además, tuvieron tiempo para recorrer el recinto ferial y para descubrir sus alrededores. Fue un día cargado de emociones. — La máquina del tiempo ha permitido a l@s alumn@s de Jakintza viajar a la época de los dinosaurios y a la Edad Media. L@s de primero fueron a **Oiangun** en busca de restos de dinosaurios, pero se conformaron con los de las vacas, ovejas, caballos y topos. L@s de segundo curso se acercaron hasta el **Castillo de Javier** (Nafarroa), donde pudieron conocer los viajes que este personaje hizo por todo el mundo. La máquina del tiempo está lista para el próximo viaje.

EKI DIGITALA

DBH osoan gure ikasleek EKI proiektua lantzen dute. Ikasturte honetan, DBH 1-3 eta 4an, urrats bat egitea erabaki dugu. Horregatik, euskara eta ingelesa arloetan EKI ikasmaterial digitalaren bidez lantzen da soilik. Ikaslearen liburu digitala Ikasgune izeneko plataforman dago eta, ikasleak landu beharreko jarduera mota guztiak eta jarduera hauetako beharrezkoak diren baliabideak biltzen ditu.

Unitate didaktiko bakoitzak jasotzen dituen ikasmateriala hau da: audioak, bideoak, animazioak, irudiak, informazio-testuak, jarduera osagarriak, konpetentzia digitala lantzeko fitxak eta jarduera-fitxak.

Ikasleen iritziak ere jaso ditugu eta modu honetan lana egitearen alderdi positiboak eta negatiboak azaltzen dituzte. Ikasleek erosoagoa dela diote, izan ere, klikatuz jarduera batetik bestera erraz pasatzen da, fitxak eta lan guztiak leku batean bakarrik eta ordenatuagoak daude karpetan sartuta. Gainera, eskuz ez da idazten eta jarduera batzuetan autozuzenketa egiteko aukera dago. Baina, moodle plataformari ere oztopoak ikusten dizkiote. Batzuetan IKASGUNEAN sartzeko arazoak daude eta ezin dute lanean jarraitu. Bestalde, denbora gehiago behar izaten da ordenagailuak ateratzeko, pizteko, lanean hasi eta karroan jasotzeko. Gainera, paperezko liburuan azpimarratu egin daiteke, oharrak idatzi...



ZER JATEN DUGU?

Urriaren 28an, DBH 2ko ikasleak Donostiara joan ginen. Goizean goiz autobusa hartu eta 08:30erako Txuri Urdinen ginen izotz gainean patinak jantzita. Bertan gozatu bat hartu ondoren, EHUren Donostiako campusean dagoen Joxe Mari Korta zentrora hurbildu ginen.

Ezertan hasi aurretik, bertako produktuekin osatutako hamaiketako osasungarria eskaini ziguten. Indarrak berritu ondoren, elikagaien inguruko tailer praktikoa egiteko aukera izan genuen. Taldeka jarri ondoren, barazkiak, ogia eta esnekiak gure etxeetara iritsi aurretik pasatzen dituzten prozesu ezberdinak ezagutu eta eztabaidatzeko aukera izan genuen.

Saioari amaiera emateko Joxe Mari Korta zentroko auditoriumean gaiari buruzko eztabaida burutu zen. Bertan jende ugari zegoen, besteak beste, ikastaroaren arduradunak, unibertsitateko irakasleak eta gure ikasleak.

Gure ikasleek oso parte hartze aktiboa izan zuten eta ederki moldatu ziren jendaurrean egin zen eztabaidan.



THE VOICE

Ikasturte hau gogoz hasi dute gure DBHko 1. mailako ikasleek. Ingelesko ikasgaiari, musika izan dute ardatz eta horren inguruan 'The Voice' moduko emanaldi ezin hobea prestatu dute. Gelan ikasitakoarekin musika taldeak sortu, eta hauen autobiografia ere idatzi dute. Aurkezpen modura, autobiografia hauek modu digitalean ekoiztu dituzte irudiak, bideoak eta musika txertatuz. Behin taldeak sortuta, abestiak aukeratu eta hitz berriak asmatu dituzte ingelesez. Ondoren, koreografia bereziak diseinatu eta instrumentu eta guzti, emanaldi paregabea eskaini digute. Oso saio aberatsa eta dibertigarria igaro dugu musika eta ingelesarekin elkarlanean.



- En 1º, 3º y 4º de ESO han dado un paso adelante en el proyecto **EKI digital** y este curso las materias de euskara y de inglés se están impartiendo exclusivamente con material digital que los alumnos tienen a su disposición en la plataforma Ikasgune. Se están analizando los pros y los contras del nuevo sistema. - El 28 de octubre los alumnos de 2º de ESO fueron de **excursión a Donostia**. Tras pasar la primera parte de la mañana patinando en Txuri Urdin, acudieron al centro Joxe Mari Korta del campus de la UPV. Allí participaron en unos talleres prácticos y en un debate sobre alimentación. - La música ha sido el eje de las clases de inglés en 1º de ESO, en las que los alumnos han preparado un festival al estilo del espectáculo **«The Voice»**. La preparación del festival ha incluido la elección de los grupos participantes y la redacción de sus biografías y de las letras de sus canciones, todo ello en inglés. Las actuaciones han ido acompañadas de las correspondientes coreografías. El festival fue todo un éxito.

irteera



Harritzko herri hau

Ez. Ez gara poesiaren metaforetan murgildu. Gure herriaren oinarritzko osagaiak ezagutzen ari gara. Eta, ikasi dugunaren arabera, gure herria harritzko herria da. Ezin du bestela izan. Baina harritz osatutako gure herri hau ez da harri mota bakarraz osatzen, eta hori Zumaiako Algorri interpretazio zentroan ikusi ahal izan dugu, bertara egin baitugu bisita seigarren mailako ikasle eta irakasleok.

Eguraldi iragarpena ez zen hoberena irteera egiteko, baina ez dago gu kikituko gaituen euririk ezta hotzik ere! Goizeko 09:30ean genuen zita, eta puntual iritsi ginen. Han genituen zain egun horretan gurekin arituko ziren hezitzaileak, adeitsu eta gogoz beteak. Gu bezala.

Eguna hiru zatitan banatu ziguten. Batetik, gure inguruan ohikoak diren mineralak erakutsi zizkiguten. Harriak, harriak badira, mineral horiei esker da. Izen bereziak dituztela jakin genuen: kaltzita, talkoa, pirita, magnetita... Esan ziguten zertarako erabiltzen diren, eta jakinduria hori guztia praktikan jartzeko, mineralen sailkapena egiteko aukera izan genuen tailer batean.

Ondoren, interpretazio zentroan bertan, Flysch-aren inguruko informazio handia eman ziguten: nola sortu zen, zer sedimentu motaz osatuta dagoen, non dauden sedimentu zaharrenak eta berrienak, bertan aurkitutako fosilak... Gure interesa piztu zuten eta buruan genituen galderei bide eman zieten.

Azkenik, Flysch-a bera bertatik bertara ikustera eraman gintuzten. Esan bezala, eguraldia ez genuen lagun, baina eguneko une zirragarriena bizitzeari uko egingo ez genionez, abiatu ginen. Algorriko kalarako bidean, Flysch-aren geruzak zapaldu genituen, kareharriak eta tupak bereizi genituen, eta ordura arte entzundako guztiak errealitate bilakatu ziren. Baina haizea zakar zebilen eta itsasoa haserre zegoen, beraz, kalara joatea arriskutsua zen. Hori dela eta, San Telmo basilizara jo genuen babes bila. Bertan, begiraleen azalpen gehiago jaso genuen eta zapaltzen ari ginen lauzetan fosilak zeudela jakiteak harritu gintuen. Baita, itsasoren eraginez, gu ginen lekua bera eror zitekeela jakiteak ere! Txango txikia amaitzeko, Itzuruneko hondartzaraino jaitsi ginen eta handik berriro Zumaiako erdialdera. Hor amaitu zen kostaldean, harri artean, emandako eguna.



Argazki hau 1988ko Gabonetakoa da. Bertan azaltzen direnak 1984an jaiotakoak dira.

Atzean ezkerrekit hasita: Alaitz Aierbe, Edorta Luis, Jaione Otegi, Iñigo Andreu, Olentzero, Yaisa Etxezarreta, Ander Eraso, Joseba Prol, Erika Sesma, andereño M^a Kruz.

Lurrean eserita ezkerretik hasita: Oihane Aranburu, Janire Briz, Eukene Begue, Olaia Dominguez, Igor Barreros, Xabier Nazabal eta Joseba Usabiaga

OROITZAPENAK

Olentzero, non dago Napo? Prazuelako iturrian egongo da lotuta, edo Guillermoren baratzerara joango zen beharbada hostoz betetako pizsinan jolastera... nork daki, agian Olaberrira joango zen txangoan! Dagoen lekuan egonda ere, ez ahaztu behintzat aurten Jakintza ikastolako haurrak bisitatzea. Orduan biziki maite bazintuzten, orain ez zaituzte gutxiago maiteko!



jakintzaikastola

Altamira auzoa z/g
Tfnoa. 943 16 05 40
20240 ORDIZIA
www.jakintza.eus
ordizia@ikastola.net

